



NOLAKOA LITZATEKE 18 URTE IZATEA?

Gazteen adin-nagusitasunari buruzko imaginarioan murgiltzeko aukera ematen digun lantegia da: 18 urte betetzea.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Adinaren inguruko imaginarioa zuzenean ezagutzea. • Lantegiaren gaiaren inguruan taldeak duen mitifikazio-maila ikustea. • Gertaera mitifikatu baten erlatibizatzea iradokitzea. • Norberaren imaginarioaren eta erreferentzien inguruko hausnarketa sustatzea. 	<p>Metodologia parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argazki-safaria. • Hitzaldi-eztabaida. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua: 10. • Adina: 14 – 18. 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 saio: 2h/s.

Argitaratzailea:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Laguntzailea:

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

IRATZARREN FORU ERAGUNTZIA



Agintuak
DE LA GOBIERNO

BAIN GARRIA RE DA!

PKTENTERES - EN AZALEAN AGERTU NAHI AL DUZU? KONTAGUZU!

pktenteres@vitoria-gasteiz.org



2007ko azaroko azala.

0. TESTUINGURUA

Lantegi hau *PKTexpreses* Lantegi-programaren (2006-2008) barruan kokatzen da. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren menpe sortutako ekimena da eta hiriko hainbat gazte-kolektiboekin batera, prozesu parte hartzaile eta kolaboratzaileak bultzatzen ditu, talde-lana, inguruaren azterketa eta espiritu (auto)kritikoa sustatuz.

Lantegietan landutako edukiak *PKTenteres* aldizkarian argitaratzen dira (azalean eta bi orrialde). *PKTenteres* (PKT) 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hilero argitaratzen den informazio-aldizkari dinamiko eta parte hartzailea da, Vitoria-Gasteizko Gazteria Sailaren menpe dago eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin (GAUB) elkarlanean egiten da.

Info+ *PKTenteres*: www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres

Info+ GAUB: www.vitoria-gasteiz.org/omij

1. NOLAKOA LITZATEKE 18 URTE IZATEA?

Hau izango da 07/08 ikasturteko lehen lantegia. Aro berriak hasten direnean gertatzen den legez, lantegi honekin kolaboratzaile berriak ezagutzeko asmoa dugu. Haien gaitasunak eta proposatuko dizkiegun egitasmoetan izango duten parte-hartze maila ezagutu nahi ditugu, gazteen eta gure arteko kolaborazioa gero eta emankorragoa eta gogotsuagoa izan dadin.

NOLAKOA LITZATEKE 18 URTE IZATEA? Gazteen adin-nagusitasunari buruzko imaginarioan murgiltzeko aukera ematen digun lantegia da: 18 urte betetzea.

18 urte izatea, horrenbesterako al da? Hau da 2007ko azaroko *PKTenteres* aldizkarian agertu den kolaborazioaren behin betiko izenburua. Izenburu honek lantegiaren gaia laburbiltzen du: nerabe-talde baten ikuspegitik, zer esan nahi du 18 urte betetzeak?

2. HELBURUAK

Hona hemen *PKTexpreses* lantegien helburu orokorrak:

- *PKTenteres* aldizkaria gazteengana hurbiltzea eta euren adierazpide eta tresna gisa sentiaraztea.
- Gasteizko gazteen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
- Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.
- Gaur egungo gazteria indartzea eta hari hitza ematea.
- Talde-lana sustatzea.
- Nerabeen arteko elkarrizketa eta espiritu kritikoa bultzatzea.
- Elkartasuna eta begirunea sustatzea.

PKTexpreses lantegiak Gasteizko Udalaren lantegi-programan kokatzen dira. Bertan sortzen diren eztabaidek eta edukiak *PKTenteres* aldizkariaren edukiak osatuko dituzte.



Lantegitik ateratako eta aldizkarian argitaratutako behin betiko edukiak.

Jaits ezazu PKTenteres 50.zbk. (2007ko azaroa)
www.vitoria-gasteiz.org/pktenteres

- Gazteen eta erakundeen arteko hurbilketa-formulak sortzea.

Nolakoa litzateke 18 urte izatea? lantegiaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Adinaren inguruko imaginarioa zuzenean ezagutzea.
- Lantegiaren gaiaren inguruan taldeak duen mitifikazio-maila ikustea.
- Mitifikatutako gertaera baten erlatibizatzea iradokitzea.
- Norberaren imaginarioaren eta erreferentzien inguruko hausnarketa sustatzea.
- Gazteen arteko lotura parte hartzaile berriak sortzea.
- PKTenteres aldizkarian kolaborazio-lanak egiteko balizko kolaboratzaile berriak ezagutzea.

3. EDUKIAK

Lantegiko edukiak parte-hartzaileen eta 18 urte betetzearen inguruan dituzten kezka eta interesen arabera izango dira

Nerabeen imaginarioa.

18 urte betetzea.

Zer esanahi du gazteentzat eta zertan uste dute aldatuko dela euren bizia adin nagusiko bihurtzen direnean?

18 urte betetzearen mitifikazioa.

4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Metodologia parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea izango da. "Irudien safari multimedia" bat egitea proposatzen da.

Parte-hartzaileek "18 urte izatea" adierazten duten irudiak ekarri beharko dituzte, nahi duten ikuspegitik begiratuta (mitifikazioa, erlatibizatzea, etab.).

Irudi hauek kalean ateratako argazkiak (hiria, Gasteiz), komunikabideetatik ateratakoak (aldizkariak, egunkariak, telebista...) edo Internetetik ateratakoak izan daitezke. Era berean, marrazkiak, diseinuak, zirriborroak, zirrimarrak... izan daitezke.

Material hau guztia abiapuntu hartuta, elkarrizketa-etzabaida giltzatuko da. Ez du helburu zehatzik izango, gazteen artean ideiak gurutzatzeko erabiliko dugu eta zenbait galdera sartuko ditugu etzabaida dinamizatzeke:

- askatuko zaituela uste al duzue?
- erantzukizun gehiago emango al dizue?
- emantzipatzeko aukera emango al dizue?
- debekua galduko duten gauzak?
- debekatuta izaten jarraituko duten gauzak?

18 urte betetzea... "benetako jautzia lanean hasten zarenean edo familia osatzen duzunean dator"

"18 urte betetzea gehiago da "mitoa" eta ez dut uste hain data garrantzitsua denik, ez da erabateko aldaketa"



“18 urte betetzea data bat baino ez da”

OHARRA:

Parte-hartzaileen gurasoek sinatutako baimena behar dugu, adin txikikoak direlako eta irudiekin lan egiten dugulako.

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 3-5 lagun.
Adina: 15 – 18 urte.
Sexua: Talde mistoa.

Lantaldea Virgen Niña Ikastetxeko erakusle-bikotetik sortu da. Erakusleek gelako beste lagunak ikasturteko lehen PKTexpreses lantegian parte hartzera gonbidatu dituzte.

GAUBrekin lan egiten duen Virgen Niña Ikastetxeko DBHko ikasleek osatzen dute taldea. Lantegiko partaide guztiak gela eta ikasturte berdinean daude eta harreman ona dute beraien artean.

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

4 saio 2006ko urrian zehar.

Urriak 05.....2 h (19:00-20:00h).
Urriak 10.....2 h (19:00-20:00h).
Urriak 17.....2 h (19:00-20:00h).
Urriak 19.....2 h (19:00-20:00h).

Saio bakoitzak 2 ordu iraungo du, parte-hartzaileen inplikazioaren eta eztabaidaren arabera beti ere.

OHARRA:

Lehen kontaktua GAUBren bitartez egin da, on-line eta telefonoz jarraitu da.

7. KOKAPENA

Biltzeko lekua GAUBren instalazioak izan dira. Gazteentzako leku ezaguna da eta denentzat dago eskuragarri.

8. MATERIALA

Materiala:

- Bulegoko materiala: boligrafoak, errotuladoreak, itsasgarria, guraizeak.
- Erreferentziazko galderen zerrenda.
- Irudiak mozteko aldizkariak.
- Ordenagailuak eta internet-a.
- Inpresora.

Azpiegiturak:

- Aulkiak eta mahaia dituen gela bat.

Parte-hartzaileek ekarri beharreko materiala:

- Irudi pertsonalak.



9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...).
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa).
- Harreman eta enpatia maila.
- Taldearen harreman pertsonalak.
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna.
- Sormen-gaitasuna.
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila.
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.

10. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. saioa

2eranskina: 2. saioa

3eranskina: 3. saioa

4eranskina: 4. saioa

11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezak, etab.

IA18

Aretxaga, 10

48003 Bilbao

946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com



Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK

Adinaren inguruko **imaginarioa** zuzenean ezagutzea.
 Talde honek lantegiaren **gaiaren inguruan** erakusten duen **mitifikazio-maila** ikustea.
Espiritu kritikoa eta autokritikoa sustatzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	PKTaren aurkezpena.	PKTexpreses.	PKTenteres. (aurreko zenbakiak)
10 min.	Lantegia azaldu.	Lantegiaren <i>planing-a</i> .	
15 min.	Lantegiaren datak zehaztu.	Jarduera-egutegia.	Egutegia.
65 min.	Ideien eta irudien inguruko eztabaida.	18 urte izatea.	Mozteko aldizkariak.

PKTaren aurkezpena----- **10 min.**
 Aldizkaria azaldu. Edukien, kolaborazioen, espirituen... azalpen laburra.

Lantegia azaldu----- **10 min.**
 Lantegia azaldu: Nolakoa litzateke 18 urte izatea? Lantegia zertan datzan azaldu, planing-aren azalpen laburra. Lantegiaren helburuak eta PKTenteres aldizkariko kolaborazioa. Galderak irudien bitartez erantzun. Kamera digitalarekin ateratako argazkiak (kamera digitala eskura ez duten gazteentzat erabili eta botatzeko kamerak lortzeko aukera egongo da).

Lantegiaren datak zehaztu----- **15 min.**
 Denen artean jarduera-egutegia, jarduera horiek egiteko beharrezkoa izango den denbora eta data egokienak adostu.

Ideien eta irudien inguruko eztabaida----- **65 min.**
 Etorkizuneko egoeren, proiektuen eta euren burua 18 urterekin nola ikusten duten ideien inguruko eztabaida.
 "Imajina ezazu zeure bizitza 18 urterekin"
 18 urteei buruzko irudiak bilatzeko aldizkariak erabiliko dira.



2. SAIOA

HELBURUAK	Gertaera mitifikatu baten erlatibizatzea iradokitzea. Norberaren imaginarioaren eta erreferentzien inguruko hausnarketa sustatzea..
-----------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Ongietorria.	Pertsonalak.	Internet-a eta ordenagailuak Irudien edizioa lantzeko programak.
60 min.	Webean irudiak bilatu.	18 urte izatearen ideia Etorkizuna.	
15 min.	Irudien collage-a.	Idea pertsonalak.	

Ongietorria----- **15 min.**

Irudiak bilatu----- **60 min.**

Irudiak bilatu euskarri digitalean edo prentsan, aldizkarietan, interneteko argazkietan, etab. Gazteek 18 urte izatearekin identifikatzen duten edozer gauza.

Egunerokotasunaren hainbat alderdi komentatu ziren, eskola, ikasketak, aisialdia, gustuak, zaletasunak, familia, etab. beti ere, 18 urte betetze horren ikuspuntutik.

Irudien collage-a ----- **15 min.**

Bildutako irudi guztiekin partaide bakoitzak collage bat hasiko du 18 urte izatearen edo betetzearen ideiarekin inguruan.



3. SAIOA

HELBURUAK	Gazteen artean lotura parte hartzaile berriak sortzea . PKTenteres aldizkarian kolaborazio-lanak egiteko balizko kolaboratzaile berriak ezagutzea .
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
30 min.	Irudien collage-a.	18 urte izatearen ideia Ideiaren mitifikazioa.	Interneteko konexioa duen ordenagailua.
45 min.	Eztabaida.	Norberaren sentipenak.	Irudiak editatzeko programak.
45 min.	Aldizkarirako kolaborazioa. Irudia eta testua.	Mezua. Irudia eta edukia.	

Irudien collage-a-----**30 min.**

Bigarren saioan hasitako collage-ak osatu. Parte-hartzaileek "18 urte izatea" adierazten duten irudiak ekarri beharko dituzte, nahi duten ikuspegitik begiratuta (mitifikazioa, erlatibizatzea, etab.). Irudi hauek kalean ateratako argazkiak (hiria, Gasteiz), komunikabideetatik ateratakoak (aldizkariak, egunkariak, telebista...) edo Internetetik ateratakoak izan daitezke. Era berean, marrazkiak, diseinuak, zirriborroak, zirrimarrak... izan daitezke.

Gazteek 18 urterekin izango duten bizitza imajinatzeko askatasuna izango dute eta collage-ean irudikatuko dute.

Hirugarren saio honetan, gazteek irudiak ekarriko dituzte eta lantegian izandako parte-hartzea nola adierazi pentsatuko dute.

Eztabaida-----**45 min.**

Material hau guztia abiapuntu hartuta, elkarizketa-eztabaida giltzatuko da. Ez du helburu zehatzik izango, gazteen artean ideiak gurutzatzeko erabiliko dugu eta zenbait galdera sartuko ditugu eztabaida dinamizatzeko:

- askatuko zaituela uste al duzue?
- erantzukizun gehiago emango al dizue?
- emantzipatzeko aukera emango al dizue?
- debekua galduko duten gauzak?
- debekatuta izaten jarraituko duten gauzak?

Collage eta ideia guztiak komunean jarri. Collage-etan ikusten diren gaiak jorratuko dira, esaterako, gazteen balore-eskalaren arabera, 18 urte betetzeak izan ditzakeen abantailak eta desabantailak.

Askatasuna, erantzukizuna, erabakiak hartzea, betebeharrak, etab.

Irudia eta edukia sortu-----**45 min.**

Azken saiorako 18 urte betetzearen inguruan norberaren iritziak bilduko dituen testua idaztea proposatuko zaie. Lantegian izandako parte-hartzea aldizkarian nola islatu pentsatzea ere eskatuko zaie.



4. SAIOA

HELBURUAK

Gazteen artean **lotura parte hartzaile berriak sortzea**.
PKTenteres aldizkarian kolaborazio-lanak egiteko **balizko kolaboratzaile berriak ezagutzea**.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
60 min.	Aldizkarirako behin betiko muntaia.	Forma eta edukia.	Ordenagailua eta argazki-ediziorako programa.
30 min.	Azalerako argazki-saioa.	Irudia.	Argazki-kamera.
30 min.	Ebaluazioa.	Parte-hartzaileen iritzi pertsonalak.	Ebaluazio-inkestak.

Aldizkarirako behin betiko muntaia-----**60 min.**
Behin betiko muntaia prestatu, lantegian egindakoa laburbildu aldizkariko kolaboraziorako.

Azalerako argazki-saioa-----**30 min.**
PKTenteres aldizkariko azalerako argazki-saioa egingo dugu.

Lantegiaren ebaluazioa-----**30 min.**
Parte-hartzaileen iritziak ezagutzeko ebaluazio txikia egingo dugu.